

Balorezko proposamena, enpresak eskaintzen dituen zerbitzuen onura multzoa da. Onurak bi motatakoak izan daitezke, kuantitatiboak eta kualitatiboak. Kuantitatiboak, neurgarria dira (abiadura, prezioa...). Kualitatiboa berriz, bezeroen ikuspegitik produktua edo zerbitzua nola den azaltzea da.

GEKB (Gizon eta Emakumeank Kirolean Berdin) Erakundearen kasuan, onura bai kuantitatiboak baita kualitatiboak ere eskeintzen dira; izan ere, zerbitzu edo ondasun batzuk neurgarriak dira, hala nola, materiala, asoziazioari emandako donazioak... Dena den, gure zerbitzu gehienak kualitatiboak dira, hau da, bezeroen ikuspegia eta iritzia kontuan hartzen ditugu zerbitzu horiek hobetzeko eta gure bezero eta publikoari egokitzeko. Zerbitzu horien artean baditugu hitzaldiak, tailerrak, ariketak, aholkularitza, lege arloaren zerbitzuak...

Gure erakundearen asmoa, kirolean emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatzea da. Horretarako, estereotipoekin amaitu nahi dugu, tradizionalki maskulintzat hartu diren kiroleetatik atera eta mutilak beste kirol batzuk frogatzera animatuz.. Futbola, saskibaloia eta hockey bezalako kiroleetatik ateratzera animatu nahi ditugu beste hainbat diziplina frogatu ditzaten, hala nola, balleta, gimnasia erritmikoa, igeriketa sinkronizatua... Gizarteak neskekin erlazionatzen dituen kirol guzti horietan mutilen partaidetza sustatzea dugu helburu. Era berean, neskek ere beraien "confort" aldetik atera nahi ditugu eta beste kirol berriak frogatzea eta disfrutatzea dugu sede.

Rolak atzean uztea nahi dugu, gazteak eta haurrak kirolaz gozatzea animatuz, sexu eta gizarte sexualizatu baten eragina izan barik.

Gainera, neskek ere federazioetan bere lekua aurkitzea nahi dugu, hau da, emakumeei arbitro edo epaile (hainbat lehiaketetan) izaten lagundu nahi diegu, haien inklusioa kirolean osoa izan dadin.

Helburu hauek lortzeko, ezinbestekoa da haurren eta nerabezeroen hezkuntzan lan egitea, informazio nahikoa emanez txikiak direnetik eta estigmak identifikatzen eta apurtzen ikasten lagunduz, etorkizunean berdintasunean oinarritutako gizarte bat eratu dezaten.

GEBK Erakundeak ekintzak, hitzaldiak eta tailerrak eskeintzen ditu berdintasunean oinarritutako hezkuntza hori eratzeko eta kirol munduan matxismoa eta diskriminazioa behin betiko desagertu dadin.

Honako hauek izango dira eskeiniko ditugun zerbitzuak:

- Hitzaldiak eskoletan, kirol klubetan eta interesatuta dauden beste elkarteetan... gaiari buruz kontzientzia sortzeko.
- Ekintzak antolatu hainbat ekintza edo programen barnean. Adibidez, Durangoko azokan, Gasteizko Erdi Aroko merkatuan... ahalik eta jende gehiagorengana heltzeko.
- Lehiaketa mixtoak antolatu berdintasuna kirolean sustatzeko.
- Udarako kanpamenduak antolatzea hainbat kirolarekin erlazionatutako talde ekintzekin, hitzaldiekin, jokuekin...
- Gure asoziazioaren barruan departamentu legal bat dago zerbitzu legalak eskaintzen dituen (aholkularitza, abokatuak...) kirol mundu profesionalean ematen diren hainbat injustizia saihesteko edo konpontzen laguntzeko.

GEKB ematen duen zerbitzua ezinbestekoa da gaur egungo gizartean eta benetan beharrezkoa da kirolean berdintasunak eragin gehiago izan dezan.

Beste erakundeetatik ezberdintzen gaituena kirol arloan zentratzen garela da. Hau da, beste erakunde ez bezala, arlo ludiko eta profesional hau, zehazki lantzen dugu genero ezberdintasuna arlo horretan behin betiko saihestearren. Bestalde, kanpamenduak egiten ditugu, hau da, edozein adinetarako ariketak prestatzen ditugu. Azkenik, ume txikietan enfokatzen gara, batez ere, txikitatik oinarri sendoak jaso ditzaten.